

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KIROL ETA OSASUN SAILA

2019ko irailaren 6ko ALHAOn - 2808 zk. - argitaratutako iragarkiko- 2019. urtean jolas- eta kirol-jarduerak garatzeko deialdi publikoaren barruan kirol-entitateei dirulaguntzak emateko ebazpena -akatsa zuzentzea

Ebaluatzeko organo kolegiatuak hau dioen txostena eman zuen 2019ko urriaren 28an:

C, D eta E taldeei 2019. urterako dirulaguntzak emateko deialdi publikoan organo kolegiatuak egindako ebaluazio-txosteneko akatsak zuzentzea.

Une honetan, Kirol Zerbitzuko burutza bete gabe dago.

2019. urterako dirulaguntzak emateko deialdi publikoaren barruan, organo kolegiatuak C, D eta E taldeei dagokien ebaluazio-txostena egin zuen 2019ko ekainaren 21ean, zeina 2019ko ekainaren 27an argitaratu baitzen Gasteizko Udaleko taulan.

Txostenean, balioespen hau agertzen da E taldearen ebaluazioan:

E multzoaren programa

Kirol-taldeek Estatu mailako lehiaketa ofizial federatuen egutegian parte hartzea.

- E programa. Zuzkidura: 19.000,00 euro - Puntuko kalkulatu den balioa: 14,62 euro.

- Konkurrentzia: 4 ekitaldi - Soberan geratutakoa: 4.014,35 euro.

Aurrera kirol kluba - futbola-Aurrera 11ko futbola, (emakumeak) 2. maila

G01035419-421-4.500,00 euro.

Zuzenak kirol kluba-Fundación Vital Zuzenak, 1. maila Gurrupildun aulkiko errugbia- G01120518-307-4.485,65 euro.

Arabako Iristaketa Federazioa-Patin gaineko hockeyko Ok Plata liga (emakumeak)-G01046804-260-3.000,00 euro.

Arabako Iristaketa Federazioa-Patin gaineko hockeyko Ok Bronze liga (emakumeak)-G01046804-312-3.000,00 euro.

Ebaluatzeko organo kolegiatuak 2019ko ekainaren 21ean egindako txostena oinarritzat hartuz, Kirol eta Osasun Saileko zinegotzi ordezkariak C, D eta E taldeentzako dirulaguntzak ematea ebatzi zuen 2019ko abuztuaren 29ko dataz, eta ebazpena irailaren 6ko ALHAOn (103. zk.) argitaratu zen, dirulaguntzen deialdiaren betekizun guztiak beteta.

2019ko urriaren 22an, E taldearen datuen transkripzioan akats bat antzeman zen, zehazki, bi eskabidetan eskatzaile gisa Arabako Iristaketa Federazioa agertzeari dagokionez. Dirulaguntzetarako eskabideak kudeatu zituen organoari emandako dokumentazioa aztertu zelarik, eskatzailea Aurrera kluba (irristaketa atala) —IFZ G01035419— izan zela egiaztatu zen, eta ez Arabako Iristaketa Federazioa.

Beraz, ebaluazio-txostena honela idatzita geratuko da E taldeari dagokionez:

E multzoaren programa

Kirol-taldeek Estatu mailako lehiaketa ofizial federatuen egutegian parte hartzea.

- E programa. Zuzkidura: 19.000,00 euro - Puntuak kalkulatu den balioa: 14,62 euro.

- Konkurrentzia: 4 ekitaldi - Soberan geratutakoa: 4.014,35 euro.

Aurrera kirol kluba - futbola-Aurrera 11ko futbola, (emakumeak) 2. maila

G01035419-421-4.500,00 euro.

Zuzenak kirol kluba-Fundación Vital Zuzenak, 1. maila Gurpildun aulkiko errugbia- G01120518-307-4.485,65 euro.

Aurrera kirol kluba - irristaketa-Patin gaineko hockeyko Ok Plata liga (emakumeak)-G01035419-260-3.000,00 euro.

Aurrera kirol kluba - irristaketa-Patin gaineko hockeyko Ok Bronce liga (emakumeak)-G01035419-312-3.000,00 euro.

C, D eta E taldeei dirulaguntzak emateko Kirol eta Osasun Saileko zinegotzi ordezkariaren 2019ko abuztuaren 29ko ebazpenean agertutako akats materiala antzeman delarik, hori zuzendu beharra dago, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua erabiliz.

Dirulaguntzetarako deialdi publikoa arautzen duten oinarri orokor eta berariazkoen 8.4 atalean xedatutakoarekin bat etorrira, Kirol eta Osasun Saileko zinegotzi ordezkariak ebazpen hau eman du:

Lehenengoa. C, D eta E taldeei dirulaguntzak emateko Kirol eta Osasun Saileko zinegotzi ordezkariaren 2019ko abuztuaren 29ko ebazpenean antzemandako akats materiala zuzentzea "E" multzoaren programari dagokionez; honela idatzita geratuko da:

1. Onetsitako eskaerak:

E programa

Kirol-taldeek Estatu mailako lehiaketa ofizial federatuen egutegian parte hartzea.

- E programa.

- Zuzkidura: 19.000,00 euro - Puntuak kalkulatu den balioa: 14,62 euro.

- Konkurrentzia: 4 ekitaldi - Soberan geratutakoa: 4.014,35 euro.

Aurrera kirol kluba - futbola-Aurrera 11ko futbola, (emakumeak) 2. maila

G01035419-421-4.500,00 euro.

Zuzenak kirol kluba-Fundación Vital Zuzenak, 1. maila Gurpildun aulkiko errugbia-G01120518-307-4.485,65 euro.

Aurrera kirol kluba - irristaketa-Patin gaineko hockeyko Ok Plata liga (emakumeak)-G01035419-260-3.000,00 euro.

Aurrera kirol kluba - irristaketa-Patin gaineko hockeyko Ok Bronce liga (emakumeak)-G01035419-312-3.000,00 euro.

Bigarrena. Ebazpen hau Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean, ALHAOn, Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa eta www.vitoria-gasteiz.org web-orrian argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Erabaki honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako

Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsua, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berriazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsua ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 28an

Kirol eta Osasun Saileko zinegotzi ordezkaria
LIVIA CLAUDIA LÓPEZ GUTIÉRREZ